

Izena:

A)Entzumena:

1) Aukeratu informazio zuzena:

	ZUZENA	OKERRA
Etxebizitza bat erosi nahi du.		
Etxeak lau logela eta hiru komun dauzka.		
Etxeak balkoia ere badu.		
Etxeak 150 metro karratu ditu.		
Ganbara dauka.		
Alokairuak 25 mila pezeta balio du.		
Etxea erdialdetik urrun dago.		
Etxea altzariz jantzita dago.		
Gela guztiek kanpoaldera ematen dute.		
Etxeak telefonoa dauka.		
Etxeak berogailua dauka.		
Eskailerako gastuak 12 mila pezetakoak dira.		
Etxea merkea iruditzen zaio.		

B) Irakurmena

- 2) Alokairuan bizitzeko etxebizitza baten bila ari zara Donostian. Irakurri "Etxebizitzak alokairuan" iragarkiak eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderei.

AMARA. Etxe berria. Bi logela, komun bat, egongela eta sukaldea ditu. Bigarren pisua. Ez du igogailurik. 600€ hilean.
GROS. Gela bakarreko apartamentua, altzariz hornitua. 4. solairuan. Igogailua du. Autobus-geltokitik gertu. 980€ hilean.
EGIA. Bi logela ditu, amerikar sukaldea eta komun bakarra. 750€ hilean.
ANTIGUA. Gela bat alokatzen dut 4 logelako pisu batean. Altzariz hornitua dago. Pisuak 80 m2 ditu. Oso argitsua da. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidea. Ez erretzaileentzat. 300€ hilean.
INTXAURRONDO. 3 logela, komun bat, egongela eta sukaldea. Terraza du. Ondo komunikatua. 950€ hilean.
BERIO. 800€ HILEAN. 90m2-ko etxebizitza. Oso argitsua. Bi logela, egongela, 2 komun eta garajea ditu. Ikastolaren eta kiroldegiaren ondoan dago.

1. Non dago hiru logela dituen etxebizitza?

- A. Antigua auzoan.
- B. Gros auzoan.
- C. Intxaurrondo auzoan.

2. Non ezin daiteke erre?

- A. Gela bakarreko apartamentuan.
- B. Lau logela dituen etxebizitzan.
- C. Intxaurrondon dagoen etxebizitzan.

3. 80m2-ko etxebizitza zein solairutan dago?

- A. 1. solairuan.
- B. 4. solairuan.
- C. Ez du jartzen iragarkian.

4. Zein etxebizitzak ditu bi komun?

- A. Kiroldegiaren ondoan dagoenak.
- B. Amarakoak.
- C. Amerikar sukaldea duenak.

5. Zein da oso argitsua?

- A. Terraza duen etxebizitza.
- B. Antiguakoa.
- C. Antiguakoa eta Beriokoa.

3) Irakurri hurrengo iragarkiak eta aipatu etxe bakoitzak dauzkan **hiru abantaila** edo **desabantailak**:



GETXO. Bilbotik oso hurbil. 72 m²ko etxea. Eraikin berria da. Bi logela, jangela, sukaldea eta bi komun dauzka. Gela guztiek kanpoaldera ematen dute eta sukaldeak eta logela guztiek balkoia daukate. Ingurua oso lasaia da, hondartzatik hurbil dago. Bilbora joateko metroa eta autobusak daude.

Yolandaren etxea



PARIS. Nore Dame ondoan. 45 m²ko etxea. Eraikin zaharra da, baina etxea berrituta dago. Logela, sukaldea, egongela eta komuna dauzka. Ez dauka balkoirik eta komunak eta sukaldeak barrualdera ematen dute. Logelak eta egongelak kanpoaldera ematen dute. Bista ederrak dauzka: Sena ibaia, Notre Dame... Metroa eta autobusak badaude.

Sophiren etxea

Yolandaren etxeak dauzkan hiru abantaila edo desabantailak:

Adibidez: *Yolandaren etxea berriagoa da.*

Sophiren etxeak dauzkan hiru abantaila edo desabantailak:
